

INDALEZIO BIZKARRONDO

(BILINCH)



I

The poetry of carth is never dead.

John Keats.

Bilinch zein zan eta nolakoa zan obeto ikusteko, nongoa zan, eta nola bizi izan zan, nondik bere buruaren argitasunak atera zituen, begiratu bear degu lenbizi. Baso itzaltsuan perrechikuak sortzen diran bezela, ez da izkribatzallea sortzen: badu bere jatorria, baditu bere sustriyak. Gauza bat alde batetik artu du; beste bat bestetik; eta guztiak piztu eta isiotzen ditu bere barrengo suarekin, bere asnasarekin, bere izaera bereziarekin. Gizon asko-jakin batek esan du chit egoki, ez dala lurrean egiazko sortzallerik, utsetik, ezerezetik gauzak ateratzen dituenika. (1) Irudimenak asmatzen dituen gauzik arrigarrienak ere badituzte beren aurrekoak izan oi dituzten bezelasean.

Mendarte estuetan, zeru zirrindara bat besterik ikusten ez dan erre-

(1) Pio Rajna. Le fonti dell'Orlando Furioso. Ara bere itzak: creatori nel senso assduto della parola, non ne esistono. I prodotti della fantasia non si sottraggono alle leggi universali della natura.

ka basterretan jayo ta azi dana, eta azkenik ageri etzayon zelai zabal-zabal zimur gabekoan bere egunak igaro dituen, ez dira berdiñak. Mendiak gora beti ibilli bear duena, izan oi da gogorragoa, nekatzen gaitzagoa: lur lanetan beti dabillena, nagiagoa, askoz lenago aspertzen dana.

Laño-tartean, arginaian bizi diranak izkribatzen dute era batera: eguzki didizaria beti aurrean dutenak: bestera. Batzuek dira lilluragariagoak: besteak biotzera bigunkiago sartu, eta malkoak errazago ateratzen dituztenak. Badirudi lan edo izkribu oietatik, batzuek dirala begiak alaitzeko: besteak, biotza mugitzeko; guztiak ederrak izanagatik, bakoitza bere antzera.

II

Bilinch, euskalduna baño geyago, gipuzkoatarra da: gipuzkoatarra baño oraindik geyago, donostiarra. Non jayoa dan, non bizi izan zan beti, ongi ezagun du. Donostiarra da bere izkera: (1) donostiarra da bere izaera: orregatik, donostiarra izango dira beti, Bilinch -en neurtitz gozazu edo farre-eragilleak, gogotikago entzur. eta irakurriko dituztenak: Donostiatik aterako dira ere, Bilinch-en ondoren joango diranak, eta berari, izkribatzeko moduan, alegiñik geyenean jarraituko diotenak. Donostiar egiazkoak, Bilinch-en gauzaren bat entzutean, uste dute beren barrenean surmurrean bezela entzuten zuten gauza bat aditzen dutela. Belarriakin baño geyago biotzarekin entzuten dute, beren biotzaren erdi-erdian lo zegoen oiarzunen bat esnatuko balitz bezela.

Donostiarra da berez maitatia: ala da Bilinch ere bere neurtitzetan. Badirudi maitetasunak itzegiten duela bere aotik, eta maitetasunak ar-

(1) Ala «ez nazu baietz esan» (Neshacha bati mutil batek jarriak) eta ez: «ez didazu baietz esan. Ala ere, «zeren ez nazun entzun,» eta ez, «zeren ez didazun entzun, (Erderaz Villegas-ek egintako neurtitzen itzuleran). Ala, «eskumuñak maiz bigal nazkitzu (Koncheshirentzat) eta ez «eskumuñak maiz biral zazkidatzu.» Ala, «aztutzat lajia,» (Potajiarena) eta ez «aztutzat utzia Edozeiñek daki, oek guztiak Donostiako esaerak dirala. Larramendi argidotarrak bere egunetan nabaitu eta aditzera eman zuen guk orain esaten deguna: «En San Sebastián pur el barbarismo primera-kua y el solicismo Esango nazu, por lenbizikoa, lenengoa y esango didazu.» (Corografía de Guipúzcoa—De los dialectos del vascuence y del particular de Guipúzcoa.)

gitzen diola bere burua, eta sutzen bere biotza. Donostiarra da, ere, farrezalea, gauza ez egoki bat, farragarri bat ikusten duenean, bereala farrez asten dana: orobat Bilinch: farrea ezpañean dauka beti, eragabekeri bat ikustearen zai ezpañetik ateratzeko. Norbaitek sinistu nai ez badu, guk esaten deguna, irakurri beza Zaldi baten bizitza, entzun beza Ja-jay, eta batez ere, ikasi beza buruz Domingo Kanpaña. Iluna izango da benetan gauz oiek aditu eta ikasi, eta farrerik egiten ez badu. Donostiarra ez da aserretia: ez ta ere Bilinch. Farrean gelditzen da, aserre biziko sugarretara irichi gabe. Beñ bakarrik, guk dakigula, bere itzak azaltzen dira aserretasunez beterik: Pobriaren suertia gogora ekartzen duenean, eta orduan, ongi begiratzen badegu, ikusiko degu, itz oietatik asko, Zaldi baten bizitza-tik artuak ez badira, aien antze-kuak, berdintsu samarrak dirala. (1) Donostiarra da (¿zer dula ta isil-

(1) Begira emen batzuek eta bestea:

ZALDI BATEN BIZITZA

Lana sobra du, bañan
 Janaria falta,
 Urrikigarria da
 Dakarren planta:
 Gaisoak ez lezake
 Luzaro aguanta,
 Flakiyarekin ezin
 Mugitu du anka,
 Pentsu guchi jan ta
 Kanean jiraka,
 Gaizki bizi da ta
 Indarrik ez daka,
 Ezin karriatu du
 Karro bat kaka.

POBRIAREN SUERTIA

Beste alibiyorik
 Pobriak ez daka,
 Negarrez jayo eta

duko gera, egisa esan gabe?) sagardo-zalea: ondo jan ta edateak poztutzen duena. Bilinch-en neurtitzetatik bera azaltzen zaigu. Ala ez izatekoz, etzuen izkribatuko Potajjiarena: etzigun esango, jartzen zala geyenian.

Dantzan asteko zoriyan

.....

Egiten dutenian

Arduak botillan klun-klun-klun,

Gaztañak surtan pun-pun-pun. (1)

Bizi arrastaka;
Galtzarbian, kolkuan
Nun-nai arraskaka,
Erropetan koipia,
Zikiña ta kaka
Jendiak ikustian
Artutzen du nazka,
Danak pasatzen zaizka
Ondotik presaka:
Nai baldin badu ibilli
Kalian jiraka,
Ateratu orduko
Echetikan anka,
Mutill chikiyak ditu
Atzetik millaka
Azenariyo eta
Patata tiraka

.....

(1) Orentzaro.

Neurtitz oek gogorazitzen dizkigute beste gaztelaniazko batzuek, Adolfo Aguirre zanak Bilbotarrair egoki jarriak:

«Cifrando en la cazuela y en el vaso
Consoladora fé,
Coma usted, beba usted, no haga usted caso
Su gran máxima fué.»

(La Campa de la Unión.)

Euskeraz, neurtitz asko dira, jan-edanaren gañean sortuak. Bilinch-enaz gañera oroitzen zaizkigu: Iru damacho, Glu glu, Upelategi, Chanton Pipirri (eta ez Piperri, geyenak esan oi duten bezela), Ardo kanta napa-

Au izkribatu zuenak, eziñ uka zezakean, ardoaren ontasunak ospatu zituen Aita Meagher gizon zoliaren erritarra zala.

KARMELO

ECHAGARAY-KOAK

(Aurrendatuko da.)



rra, Peru duakok, Erariaren bertuteak, Aita Meagher-ek ardoari jarritalco kantak, Edalen elheak, eta beste geyago. Lan onen egilleak, aurra zanean, entzun oi zuen kanta bat orain ezin esan duena, geyena aztu zaio-lako; baña gogoratzen da oraindik, moskor batek bera iltzen zanean obia-ren gañean zer jarri bear zioten esaten zuela. Uste degunez, bazirudien Ronsard-ek Rabelais-entzat asmatutako obizdetik itzulia. Etzan ala izango noski: Euskerazko neurritz ayek atera zituenak, etzuen jakingo Ronsard lurrean bizi izan zanik; baña batari ta besteari gauza ber-berak etorri zitzaizkioten burura. Ala nola zion Ronsard-ek:

«Or toy, quiconque sois, qui passes,
 Sur sa fosse repa des tasses,
 Repa du bril et des flacons,
 Des cervelas et des jambons:
 Car si encor dessous la lame
 Quelque sentiment a son ame,
 Il les aime mieux que les lis,
 Tant soient-ils fraichement cueillis.»

(Epitaphie de François Rabelais.)

INDALEZIO BIZKARRONDO

(BILINCH)



III

Bilinch-ek ez du ezagun donostiarra dana bakarrik. Ezagun du gainera, Donostian kaletarra dana. Baserritarra izan balitz; mendian, eguzkia aurrez-aurre ikusirik, idi ta beyakin nekazaritzan igaro izan balitu bere egunak, etzan mintzatuko oi zan erara. Gure artean erraz aztuko ez dan Manterola zanak, esan zuen Bilinch, Donostia-ko Elizamburu zala; eta Elizamburu zala, Sara-ko, Lapurdi-ko Bilinch (1). Nere iritzian, ori eziñ esan diteke egiaz, batik-bat, Elizamburu baserritarra zalako, eta Bilinch kaletarra. Bilinch-ek ez du beñere nekazariaren zorientasunik gogoratu: Elizamburu-k bai, eta ¡zeñen eroso! ¡zeñen gozatsuki! ¡nekazaritza zer dan dakienak bezela! Elizamburu-rentzat, ondo izatea lau aritz andiren artean dago, iturriche baten inguruan, egunsentia illuntasunen nagusi ta urratzalle jortzen zaigunean, mendiska baten ikusten dan eche chikian (2). Bilinch-entzat zoriona dago, bere

(1) Cancionero Basco - III. pág. 213.

(2) Nere etchea, edo laboraria.

maitearen ondoan, dagoen tokian dagoela (1): etzaio beñere entzungo mendira joan nai duenik: ez du inoiz gure begian aurrean jarriko, Donostia-tik atera bezin laster, agertzen zaizkigun mendi, zelai, ibaiertz eta itsas-aldeko edertasuna Loyola-n ikusten du neskacha polit bat bere biotza sututzen diona (2): ez digu esango arratsaldeak nola zabaltzen zituen itzalak, eguzkia ezkututzen zijoan bezela, ez eta ere nola Uru-mea-ren urak, ispillu garbi bat ziruditen, goi-aldamenetan ziran gauza ikusgarri guztia erakusten zituena. Maria, Elizamburu-ren maitea, ez da kalean bizi, baizik baserrian. Echerako erle bat da,

Eta landan orobat hari lanean
Behar denean.

Bilinch-ek emakume baten ontasunak ospatu ditunean, ez du beñere esan, Elizamburu, ren antzera, emakume ark beren baduela batzatan

Udan eta neguan lorez batea,
Errek-arte. (3)

Bilinch-ek esango du bere osasuna dala (4), izarra dala (5), eguzkiaren kopetatik eges egintako chingar bat dala (6); beñ edo beñ bakarrik esango du Apirilleko arrosa dala (7); beste beñ edo beñ bere

(1)

«Zori onian ikusten zaitut,
¡Nere biotzak au poza!
.....
Nere onduan zauzkatalako
Pozez zoraturik nago . . .»

(¡Izazu nitzaz kupira!)

(2) Ja-jay.

(3) Maria.

(4) Gaztetan jarria dama bati
Neskacha bati mutil batek jarriak.

(5) Juramentua. Kanpua da.

(6) Beti zutzaz pensatzen.

(7) ¡Izazu nitzaz kupira!

ezpañak krabeliñak **dirala** (1): ez du itzegingo, beti lore-tartean oituta dagoenak itzegingo lukean antzera. Larrosa ta krabeliña zer nolakoak diran jakiteko ez da menditarra izan bearrik,

Bere maitetasuna nolakoa dan, zeñen bizia dan egokiago aditzera eman nai digunean, aitatuko du, udan intza maite duen lorea (2), kabira nairik beti dagoen chori argizalea (3), chimistak mendian pizten duen arbol igarra (4): ez digu esango zer lore dan ori, zer chori dan ori, zer arbola edo zuaitz dan ori. Kaletarra, chit mendizalea ez bada, ez da biziro artarakoa izaten, zuaitz bakoitzari bere izena emateko. Ez du Iztueta-k bezela, Gipuzkoan zenbait zuaitz-umeta diran, eroso esango: ez du jakingo zer dan ezkia, ez zer dan urkia, eta saratsa, eta lerchuna, eta lizarra, eta inchusa, eta astigarra, eta zumalikarra, eta goristia, eta gurpicha, eta zumea, eta chillarra eta altza. Oen aurean beti dagoenak, ongi ezagutzen ditu. artzaiak bere artaldeko ari, ardi ta bildotsak, banaka banaka ezagutzen dituen bezela. Eta zerbait esan bear duenean, etzaio zuaitz izengabea gogoratzen, baizik onelako edo alako zuaitz: aritza edo pagoa, inchaurra edo zumarra.

(1) Loriak.

«Aren ezpañ gorriyak,
Faman daude fiñtzat,
Iñoiz pasatzen dira
Lore polit bitzat,
Zerbaitez apartetik
Ikusi ta beintzat,
Mundu guztiak artzen
Ditu krabelintzat..

(2) Loriak udan intza bezela,
Maite det dama gazte bat ...
(¡Izazu nitzaz kupira!)

(3) Eguzkirikan ikusi gabe
Choriya egoten da triste,
Ni ez nau ezerk alegratutzen
Zu ikustiak ainbeste.
(¡Izazu nitzaz kupira!)

(4) Biyotz nerian ala piztu du
Amoriyozko su-gurra,
Nola mendiyen piztu dezaken
chimistak arbol igarra.

(Beti zutzaz pentsatzen.)

Meditarrari-etzitzayon etorriko

Eguzkiyagelara
Kristaletatikan (1)

sartzen danik, bere maitea biotzera begietatik nola sartu zitzayon bizi-roago esateko. Ori izkribatzen duena, bere echearen aurrean beste eche geyago ikusten oitua dago: etzaio, oietik jaikitzean, argia aurrez-aurre azaltzen, alde guzietara poza ta alaitasuna daramala: ez ta ere baso itzaltsuko osto-tartean indarra galduta. Orregatik esan degu lenago, Bilinch-ek ezagun duela, ez bakarrik Donostiakoa dana, baizik Donostian kaletarra. Ez degu au esaten Bilinch beretzeagatik, ez: bakoitzak, dan bezelakoa izan bear du, aundia izateko. Orain aste guchi dala ill dan gizon ospatsu batek esan du: Izan zaite zerorri zerana (2).

IV

Baña ez da aski Donostia ko kaletarra izatea, Bilinch izateko. Donostian kaletarrak asko dira, eta Bilinch-ik bat bakarrik. Bilinch-ek izkribatu zuena izkribatzeko, barrengo argitasuna bear da, Zerutik datorren doaia. Argitasun orrekin aberastua ez dagoena, alferrik asiko da neurtizak asmatzen: alferrik ikasiko du besteak nola eroso ipiñi dituzten. Bere itzali ez dute disdiz egingo, Zeruko doaidunak ateratako itzak

- (1) «Sartutzen dan bezela
Balkoi batetikan
Eguzkiya gelara
kristaletatikan,
Neri gisa berera
Beñ sartu zitzaitan
Dama bat biyotzera
Begiyetatikan.

(Loriak).

Itz neurriyagabe edo larrietan ere, berdintsu esaten zuen: Ilargiyaren argiya balkoi bateko kristaletatik gela batera iragasten dan bezela ishili-ishilik eta gozo gozo, zure begiratubaren gozotasuna iragasten zait begiyetatik biotzera.»

(Páginas inéditas en prosa. III — Cancionero Basco.— II — 96-98.)

- (2) Ibsen.

bezela. Larramendi-k biursakintza (1) izendatzen duena zer dan esatea, ez da erraz: zer dan ezagutzea, bai. Irakurleari biotz-biotzeraño sartzen zayozkanean irakurtzen dituen neurtitzak, eta alako argitasuna dirudien gauza bat zabaltzen diotenean barrenen, orduen esan diteke neurtitz oriek datozela len aitatu degun Zeruko suarekin piztuak. Ala ez bada-toz, irakurri ta gero ez digute batere oroimenik lagako: igaroko dira gure gogotik, ondorengorik utzi gabe, arri berdin leun baten gañetik, ura igarotzen dan antzera.

Doai orrekin jayotzen danak, ez du beti arkitzen, bere barrengo argitasuna aditzera emateko era. Zenbat eta geyago dakien, zembat eta iztun egokiago dan errazago asmatuko du gauzak ederki esaten. Arro-bitik ateratzen dan arrian lan asko egin bear da, gure aurean ta-lluntz (2) ikuzgarria erakusteko. Nola joan zan Bilinch goitik zetorkion argitasuna, bere barrena betetzen zion sua, itzez azaltzen, bere lan polotai begiratzen badiztegu arretaz, laster ikusiko degu.

Chikitatik zekarren ark zerbait esan naiya. Biotzean eta buruan zebilkion argitasun batek zeraman izkribatzera. Berak esaten digu argiroki:

Kantatutzera indaraundiko
Desio batek, narama (3).

Nai ta nai ez bezela, kantatu bear zuen. Boitzak eskatzen zion kantatzeko, eta orregatik bere neurtitzak datoz iturritik ura sortzen dan antzera: berez. Badirudi lanik batere gabe etorri zayozkala burura. Erraztasun au ez da beti naigarria; bada bein baño geyagotan dakazki bera-rekin, dizdizariak ez diran gogoetak. Lenbizi ezpañetara datorren neurtitza, ez da askotan neurtitzik egokiena; baño errazki datorrionak ez du begiratzen ala dan edo ez Bilinch-ekin sarritan gertatzen da au. Batetik, aiñ ugari zetozkion neurtitzak,—eta sinistu nai ez duenari, ez da Domingo Kanpaña gogorazitzea baizik—eta bestetik, euskeraz ipiñitako gauzak irakurtzen ain oitu gaboa zegoen, ezik, ez da batere arritze-koa, neurtitz ogetan, euskerazkoan artean, berenez erderazkoak diran itz asko arkitzen badira. Donostiako kalean egunoro entzuten zituen itzak ziran, Urte batzuek geyago bizi izan bazan, etzuen Bilinch-ek ala

(1) Poesía.

(2) Estátua.

(3) Koncheshirentzat.

izkribatuko. Baña orduan ¿nork zekien Donostian, Bilinch-ek baño euskera garbiagoan izkribatzen? ¿nork irakurtzen zituen, Axular-en Peroko Gero, Mendiburu-ren Otoitzgayak, Iztueta-ren Kondaira, euskeraz gauzarik aundienak, goitsuena, eroso eta argiro esaten erakusten zuten liburuak? Bilinch zein zan jakiteko. bear dan tokiraño goratzeko, gogoan iduki bear degu noiz jayo zan, noiz bizi izan zan, noiz ill zan (1). Ura ill ta gero, asi ziran Gipuzkoan, euskera zer zan gogoratzen, euskeraz izkribatu nai zutenai indar ematen. Ala elkarganatu ziran euskerari maitetasuna zioten guztiak, eta batzuek bestee-gandik ikasi zuten ederkiago mintzatzen, basertitarrari edo arrantzaleari entzuten zizkioten itzak obeto apaintzen, egokiago elkarganutzen. Len ikusten etziran argi dizdizariak azaldu zitzaizkigun, eta arteraño soill-soillak ziran lurretan, agertu ziran lore ikusgarri usai gozozkoak. ¿Zer ez ote zuen egingo Bilinch-ek bizi izan balitz? Ez dago begiratu baizik, bere gaztetako neurtitzetatik azkenekoetara zenbat ikasi zuen.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(Aurrendatuko da.)



(1) 1876-an ill zan Bilinch. 1879-an izan ziran Donostian lenbiziko euskal-izkribatzallen indar-neurtzeak. 1879-an agertu zuen, ere, Arrese eta Beitiak, bere Ama Euskeriari azken-agurra.

INDALEZIO BIZKARRONDO (BILINCH)



Lenbizikoa dira zerbait esan bear eta ongi esaten asmatzen ez duenaren antzekoak. Ala, Gaztetan jarriyak dama bati: ala; Neskacha bati mutil batek jarriak. Orduan, bere maiteari esaten dio:

Argitasun aundiko
Perla garistiya,
Nere osasuna ta
Nere eguzkiya;
Baita ere zu zera,
Maitecho eztiya,
Mundu ontako nere
Desio guztiya (1).

Baña geroago datoz neurtitzak obeto, egokiago jarriak Geroago ta erosoago daki non itz bakoitza ipiñi, nola barrendik berotu ta isiotu argia dariotela agertu ditezen. Geroago ta aisago sartzen da irakurlea-

(1) Ala asten dira neurtitz Gaztetan jarriyak dama bati.
Begira oraiñ nola asteten diran Neskacha bati mutil batek jarriak.

Goguan izango det,
Bai, gaurko eguna,
Berriro biyok alkar
Ikusi deguna;

ren biotzean, eta dizdiz egiñaz, irakurlearen begietan uzten du argitasun lilluragarri bat. Asi zanean neurtitzak izkribatzen, ez bazekien nola aditzera eman itz polit distiatzalleakin zeñen aundia zan bere maiteari zion maitasun sutsua, ugari datorzkio oyek urte batzuek igarotzen diranean. Loriak (1) eskeintzen dizkionean, eguzkia gelara sartzen dan antzera, bere biotzera sartu zayon neskacha maiteari, esango digu urrezkoak dirala bere ille-albiñuak; izarrak diruditen begiyak, itsasoa baño urdiñagoak, Zerua bera beziñ urdiñak dituela; krabelintzat artu litezkela bere ezpañ gorriyak; eta elurrari ez diotela churitasunean batiere zorrik, farre egitean erakusten dituen ortzak. Arrobotik ateratako arriarekin talluntza egiten ikasi du. ¿Nola?

Egun ayetan Bilinch ezagutu zuen batek (2) esan dizkigu emen gogoratu bear diran gauzak. Dio lenbizi Bilinch-i irakurri zizkiotenean Campoamor-ek, Becquer-ek eta Ven tura Ruiz Aguilera-k gaztelaniaz izkribatu zituzten neurtitzak, alakoarretaz, aĩn bere izate guztia-ekin entzuten zituela, ezik, bezirudiela biotza bere tokitik irtetzen zitzayola. Campoamor zan lenengo bere gogoa menderatu zuena. Asi zan bere ondoren jarraitzen, ark erderaz esan zuena euskeraz esan nairik, baña laster utzi bear izan zion: etzan Bilinch jayo, Campoamor euskalduna izateko. Ordea, Becquer-ekin eta Ruiz Aguilera-kin etzitzayon ori gertatu: oyeekin oso batu zan. Becquer gogoan zeukala beĩn baño geyagotan, Bilinch-en neurtitzetan ezagutzen da. Ala, bere maitea ikusi duelako pozez zoraturik bezela jartzen danean: ala, maitearen begiyakgatik dionean

Aushen da dicha, eta
 Aushen da fortuna,
 Zergatikan zu zeran,
 Maitecho kutuna,
 Nere asnasia, ta
 Nere osasuna.

Ez da aspertzen bere osasuna dala bere maiteari esatez. Baña bere lenbiziko neurtitzetatik agertzen da, zoriontasunik ez duela: etorkizuna goibeldurik azaltzen zayola. Beti esaten digu saramintasunez beterik dagoela: noiz edo noiz bakarrik, aditzera ematen digu bere barrenen poza zabaldu dala, maitea ikusi duelako, maiteak begiratu diolako, maiteak gozoki artu dituelako, bere itzak.

(1) Loriak.

(2) BENITO JAMAR. Sobre la poesía vascongada. Prólogo á las Poesías escogidas y cantos populares del país euskaro.— San Sebastián—1896.

Jaungoikoa badala
Gogoragarriyak (1)

dirala.

Baña oraindik Ventura Ruiz Aguilera biziroago nagusitu zitzayon, guregana irichi diran neurtitzak erakusten digutenez. Beñ izkribatu zuen Bilinch-ek:

Izar argi bi falta dirala
Zeruban sortu da gerra:
¿Al dakizu nork oztu dituben,
Belcharran begi ederra?

Nork esan au euskeraz jayo ez dala? ¿Nork esan neurtitz oek beste izkuntzat batetik itzuliak daudela? ¿Nork esan Bilinch-i bere biotzak esanerazi etzizkiola? ¡Ain datoz egoki! ¡Añ dira entzungarriak! ¡Añ eroso, añ poliki esaten da, Zerutik igesegin zuten izar biyak, belcharran orren begietara joan zirala! Bada, alaz guztiaz ere, neurtitz oyek, gaztelanatik biurtuak daude: Ventura Ruiz Aguilera-k izkribatu'zituenetik itzuliak. (2)

Egun ayetan jarriko zituen, ere, Bilinch-ek euskeraz, gaztelania Estaban Manuel de Villegas-ek sortutako neurtiiz gozatsu Sarteizechoari (3) ipintzen dizkionak. Ez da erraz, egokiago biurtzea. Guchitan, itzak bere menderago, Bilinch-ek iduki zituen. Guchitan erosca-go bildu zituen, obeto apainduak agertu zitezen gure begien aurrean.

Erdaldunak esan zuenez gañera, bere biotzak eraman zuen zerbait esatera, eta ala dio, sartaizechoarekin itzegiñaz:

(1) Loriak Berez lañotsuak zirala Becqner-en neurtitzak, argitzen dirau bere maitea ikusi duelako pozak sortzen dizkionean. Orduan, aldegitar dute samintasun guztiak, eta bere fedea sutzen da.

(2) Ara gaztelaniaz nola diran:

En el cielo hay alboroto
porque faltan dos luceros:
¿sabes quién los ha robado,
morenita de ojos negros?

(3) Al céfiro.

Zuaz aguro, zuaz korrika,
 Zuaz lasterka, egun juan zaite,
 Eta esayozu, ilko naizela
 Ez banan maite (1).

Gaztelaniazko neurtitzak itzuliagatik, etzuen Bilinch-ek galdu bere izaera. Gauza berriak esaten, gauza zarrak ikusgarriago jazten ikasi zuen; baña beti esan zituen berari zegozkion erara. Lore geyago zabalduagatik bere izkeran, Bilinch zan beti itzegiten zuena, bere biotza zan itz oyen azpian arkitzen zana. Biotzetik aora etzitzayon lañorik jarri barren-barrenen jayotzen zana azaldu etzedin argiroki. Esan degu len bere izkribuak irakurri-ta, besterik gabe, ezagun dala Donostiakoa zana, eta Donostian kaletarra. Bere izaera galdu balu, izkribalari erdaldun oyen ondoren jarraitzeagatik etzizayon ezagutuko, ez donostiarra zanik, ez kaletarra zanik: obeto edo charkiago esango zuen euskeraz, besteak erderaz esan zutena, naiz ez ondo etorri bere biotzak bizi-izateari eskatzen zionarekin.

Bilinch-ek irakurri zituen gaztelaniazko neurtitzetan, ez dira aita-tu gabe utzi bear Espronceda-renak. Lendabizi Loriak deitzen diran neurtitzak argitara zituenean, jarri zuen lenengo, bere izkribuaren buru onako au:

Tanta frase inútil y rodeo,
 A mi corto entender no es más que ruido;
 Pero también a mí me entra deseo
 De echarla de poeta, y el oído,
 Palabra tras palabra colocada,
 Con versos regalar, «sin decir nada.»

(EL DIABLO-MUNDO, poesía de D. J. Espronceda.)

«Ainbeste alferrikako esaera, nere iritziyan, otsa besterik ez da; bañan alaz guziaz, neri ere sartu zait biursari naizela adirazitzeke go-goa, eta itzak, elkarren ondoren jarririk, nai nuke belarriari poz eman, neurtitzakin, ezer esan gabe.»

(1) Imitación en lengua euskara de los sáficos de Villegas «Al céfiro.»
 Cancionero Basco -II- p. 60.

¿Egia ote da au? ¿Ez ote zuen Bilinch-ek ezer esan nai neurtitzak izkribatzen zituenean? Ez. Ori ala izan balitz, etziran bere neurtitzak biotzeko berotasunarekin sutuak aterako: etzuen barrengo chingar eziñ itzali zanak, isiotuko bere neurtitzak ateratzeko gogoa. Asko maite zuen: samintasun asko zuen sarritan: zorionaren billa zebillen jaio zonetik, iñoiz irichi gabe biotzak eskatzen zion gozotasun ura; eta bere maitetasuna azaltzeko, eta samintasunak gozatzeko, eta zorionaren nai bizi ark sortutzen zizkion malkoak, garraztasun guztia kendurik, gauza kutunak gordetzen diran bezela gordetzeko, izkribatu bear zuen Agitante calescimus des. (1)

Bere biotza berotu eta neurtitzak ateratzen dizkion barrengo indar au, geyenean maitetasuna da. Ez dio Bilinch-i udaberriak ezer esaten, bere maitea erakusten ez badio, edo bere oroitza ez badakarkio. Badirudi bere biotz guztia, bere buru guztia, bere izate guztia, maitearentzat bakarrik duela. Ez da aspertzen bere maitearen doaiyak azalzen: batik bat bere gorputz denaren edertasuna. Gaur ta bigar ta etzi, maitearekin dagoeiako pozez beterik dagonean, eta maitea urruti dalako samintasuna jaun ta jabe duenean, beti esango digu nolakoa dan bere biotza mendean artu dion emakumea.

Beñ esango digu, berak uste etzuela, egon zitzaiola begira,

Lendabiziko oñetara, ta
Urrena berriz gerrira;
Oñak dituzu chiki politak,
Gustagarriyak chit dira;
Gerriyan berriz eman litzazke
Kana bat zintak bi jira (2).

Beste beñ onela mintzatuko da:

Begi urdiñak dituzu eta
Arpegi zuri-gorriya,
Nere biotzak maite zaituben
Aingeru zoragarriya:

(1) Ovidio.

(2) Koncheshirentzat.

Zumia bezin biguña eta
Mia da zure gerriya,
Eztutu bage artu liteke
Bi eskubakin neurriya. (1)

Ikusi zagun orain beste batean nola goratzen dituen bere maitearen doai ta edertasunak.

Arpegi fiña, gorputza berriz
Ez dago zor esanikan,
Izketan ere grazi ederra,
Ezer ez dezu charrikan;
Mundu guztiya miratula-re
Zu bezelako damikan,
Agiyan izan liteke, baño
Ez det sinisten danikan. (2)

KARMELO

ECHEGARAY-KOAK.

(Aurrendatuko da.)



(1) Juramentuba.

(2) ¡Izazu nitzaz kupira!

INDALEZIO BIZKARRONDO

(BILINCH)



Beti ageri zaigu maitea nola omenez bete ez dakiela. Arpegi ona jartzen badio pozez lertzeko zorian jartzen da: bere itz bigun maitatiak eranzuera gabe gelditzen badira, samintasuna sartzen zayo biotz-biotzera, baña beñere ez du esango berak maite duena gaiztoa danik, beste neurtzilari askok esan duren bezela. Eskatuko dio, artzaz izan dezala kupira, eta ez dedizkiola azunak (1) eman berak eskeintzen dizkion loreen orde; aditzera emango dio beti beragaz pensatzen dagoela, eta bere biotza urtzen dijoela, tristuraren indarrez; eta gogorra arkitzen duen biotz artan errukia sortarazitzeko, esango du, bere samintasun oyek sendatzen ez bazaizkio, laster lurpera joango dala; eta orduan alferrik izango dala malkoak ugari isurtzea, lurrean isuri litezkean guztiakin ere, piztu ezin litekelako ill-ta dagoena. Chit noizik beñ Salta-rrik agertzen zaigu pozez beterik: bere maitearekin arkitzan danean; bere maiteak arrera ona egiten dionean. Orduan etzayo gogoratzen zoriontasun ura, laburra danik, aizea bezela joan litekeanik: (2) orduan

(1) Ortigas.

(2) Ala zeñen ederki zion au Lamartine-k:

«Mais jusque dans le sein des heures fortunées
Je ne sais quelle voix que j'entends retentir
Me poursuit, et vient m'avertir
Que le bonheur s'enfuit sur l'aile les années,
Et que de nos amours le flambeau doit mourir.»

(A El

ez du besterik nai baizik bere maiteari asan zenbat maite duen, nola beti ta beti maiteko duen. Bere izaera guztia ainbateraño dauka zoriontasun onekin betea, non etzayon oroitzen zeñen arin dijoazen egunak, eta egunakin gu. Igaro dana eta etorkizuna ez dira gureak. Neque, quod futurum, est meum, neque quod fuit. (1) Gure pozik aundienak, ere, beti laño-tartean agertzen dira: laster igesegingo duten bildurrak samintzen ditu.

Bilinch-en tristurak dira bere maitea ikusi ez duelako, bere maiteak eranzun ez diolako, bere maitea urruti dalako. Berak esango digu beste inork baño egokiago:

Nere begiyak beren aurrian
Ikusten ez bazaituzte,
Gizarasuak eta biotza
Egoten diran chit triste (2)

.....

Eguzkirikan ikusi gabe
Gloriya egoten da triste,
Ni ez nau ezerk alegratutzen
Zu ikustiak ainbeste (3)

.....

Isilik gorde arren
Asko dira penak,
Nere biyotz gasuan
Zugatik daudenak;
Biazuna bañere
Minkatzago denak,
Bañan zuk nai ezkerro
Goza litezkeenak (4)

.....

Tristetason aundi bat.
Joan zan ezkeroztik,

(1) Séneca.— Lib. 6 natural quuestio.

(2) Beti zutzaz pensatzen.

(3) ¡Izazu nitzatz kupira!

(4) Gaztetan jarriya dama bati.

Senti del gerozti:
 Zierto dakit ordia
 Berriz neregana
 Etorritzen danian
 Maitatzen dedana
 Poztuko naizela,
 Goizaren etorreran
 Choriya bezela. (1)

Bilinch-i **berari itzegiten utzi diogu argiroago ikusi dedin zergatik tristetzen zan eta zergatik pozten zan.**

Ez ditu beñere bere maitearian oroitzarekin, bere maitea ikusi zuen tokiak gogoratzen. Ez du beste neurtzilaria ospatsu askok bezela esaten: emen, ibai-ertzontan, aritz onen, azpian ikusi nuen: emen entzun nuen bere izkera pozgarria: emen eseri giñan biok, eta biotzetik biotzera zi-joazen maitetasunezko gauzak elkarri esan genizkion: emen, ostotarte tik zetorren eguzkiaren argia iruditu zitzaigun iñoiz baño argiagoa, iñoiz baño lilluragarriagoa: arrazkero, toki oek guziak neretzat naigarr-riak dira; nere maiteak edertuta daudela derizkiot. (2)

Bilinch-i **etzayo gogoratzen bere maitea baizik: baso itzaltsuak, ibai urdiñak, itsaso aserretuak, mendi goi elurrez estatiak, edo lañoz inguratuak, udazkeneko aizearekin dijoazen ostoak ez dute berenez iri-darrik Juramentubaren egilleari neurtitzetan mintzarazteko. Gauz oietako bat noiz edo noiz aitatzen badu, bere maitetasuna zeñen aundia azaltzeko izango da.**

Loriak udan intza bezela
 Maite det dama gazte bat ...

 Neshacha gazte paregabia,

(1) Kanpuan da.

(2) Petrarca-k **ala zion, egin ta gozokiago:**

Qui cantó dolcemente, e qui s'assire;
 Qui si revolve, e qui ratteum ill passo;
 Qui có beghi occhi mi trafisse il core.
 Qui dissi una parola, e qui sorrise;
 Qui cangi'l viso. lu questi pensier, lasso,
 Notte e di tienmi il signor nostro Amore.

Apirilleko arrosa,
Izarra bezin dizdizariya,
Choriya beziñ airosa
.....
Ez aldirazu antzik ematen
Nik zaitudala nayago,
¡Ai! mariñelak gau illunian
Izarra baño geiago... (1)

Orretarako ez izatekotz, ez ditu gogora ekarriko.


KARMELO EHEGARAY-KOAK.

(Aurrendatuko da.)



(1) ¡Izazu nitzaz kupira!

INDALEZIO BIZKARRONDO (BILINCH)



Bidasoa-tik aronz diran euskaldun neurtzilariak, Lapurdikoak eta Suberokoak eta Naparroa berakoak, ez diute orretan Bilinch-en antzik. Basozaleagoak, sortitz-zaleagoak dira: ala, Solferinoko itsuak neurtitzez bere samintasuna eta zorigaitza guri erakusten asten danean, esango digu ezin aztu zaizkiola.

. landa hegitan sortzen den lili ederra.

. ur asalean arinik doan ainara.

Larrainetako haritz, gaztaina, mendietako iturri

Badirudi au emen baño aurreratuagoak zeudela biursakintzari dagozkion gauz oyetan. ¿Ez ote da emen baño askoz lenago asi ziralako euskeraz izkribatzen, eta euskera maite zutela non nai adierazten? Gizaldi zarretatik zetorren an euskeraz neurtitzetan izkribatzeko oitura. Emen, borsolariak **bestarik etziranean, an baziran Echepare ta Oihenart, Argia darizanari **neurtitz samur bigungarriak jarri zizkion gizon jakintsuak**, Bilinch-ek **etzuen aurrekorik**: Solferinoko ichua-ren **egille Salaberri-k** bai Bilinch-ek **erbestekoetatik ikasi izan bear zuen zekiena**: batez ere gaztelaniaz izkribatzen zutenetatik (1). Echean etzuen arkitzen**

(1) Kataluniyan izkribatzen zanik etzuen Bilinch-ek erakurri. Rubió y Ors izanagatik Truebari Euskal-erriko gauzen gañean izkribatzeko gogoa piztu ziona, euskaldunak, gure egunetaraño, ez dute Kataluniyan zer izkri-

erakutsi zezaikionik. ¡Irakurri izan ballote Lapurdin ta Suberoan ordu-rako euskeraz izkribatzen zana! Baña egun ayetan, Donostian inork etzekien Bidasoaz aronzgo euskaldunak nola izkribatzen zuten. Ala, Bilinch-ek euskeraz mintzatzeko, etzuen kalean entzuten zuen izkuntza beste irakaslerik.

Noiz edo noiz farre-egin bearra etortzen zitzayon, eta orduan izkri-hatzen zuen Zaldi baten bizitza, zaldi ta randoan gañean euskeraz egin diran neurtitz guztietan ezagunena eta ospatsuena Bazan orain berrogei ta sei bat urte Donostian, kale-garbitzallearen zaldi zuri bat ezin ta aragalagoa Lan geyegiak eta jan guchiegiak ekarri zuten argaltasun izugarri artara. Bilinch-ek ikusi zuen, eta ura ikustean, barrendik etorri zitzayon alako neurtitzez zaldi zuria zer zan esateko gogoa; eta orra nola jayo zan Zaldi baten bizitza, abere argal aren eta bere nagusia Jose Mariren oroitza, euskaldunen arkan, eta batik bat. Donostia-

batzen dan jakin. Bilinch-ek bere maiteari jarri zizkion neurtitzak ez dute zer ikusi Kataluniyan biursari ezagutuenak sortu izan dituztenakin. ¡Ayek bai gogoatzen dituztela Zeruaren edertasuna, aizeazen surmur gozagarria, basoaren itzal biotza izutzen duena, itsasoaren aserrea, mendiaren zabal-tasuna, beren maitetasunaren indarrez neurtitzak ateratzen asten diranean! Bakarrik Antonio Careta-k, Amor meva izendatzen dirala ipiñi zituan neurtitzetan arkitzen det zerbait Bilinch-enak gogorazitzen dituena. Ara batzuek eta besteak, zer antz duten elkarren artean obeto ikusi dedin Ca-reta-k ala dio:

¡Ay, flor de l'amor meva! si davas fruyts un dia,
 en ells nostras imatges veyent com en espills,
 tot tremolós los brassos al coll te posaria
 dihent: Beneyta sias, oh mare de mes fills!

Eta Bilinch-ek berriz onela zion:

Amoriyuak nere biotza
 Zureganuntza darama,
 Erri guztian zeren dakazun
 Neskach bikaren fama:
 Beste fortunik mundu onetan
 Ez det desiatzen, dama,
 Aur batek berak izan gaitzala
 Ni aita eta zu ama.

(¡Izazu nitzaz kupira!)

ren artean iñoiz aztu ez dedin. Neurtitz oek zenbati eta zenbati farre eragin dioten esatea, ez da erraz. ¡Ain daude egoki jarriak! ¡Ain biziro aditzera ematen da zaldiaren indarrik eza, eta lan asko egin bearra, makilla gañean izango ez bazuen! Bilinch-ek sortu zituen moldaera guzien artean, au da ezagunenetako bat (1).

Beste bat badu gure iritzian oraindik obeagoa, ez itz bat geyago, ez itz bat guchiago daukazkiena: Domingo Kampaña-ren izenarekin eza gutzen dana. Domingo Kanpaña zan gizon oso lodi bat, bere burua bersolaritzat zeukana. Asi zan beñ, mando gañean zijoala, Bilinch zirikatze-ko ustean; baña toki charrean asi zan; bada bereala entzun zuen entzun nai etzuen, eta bere inguruan ziran guztiak bere bizkar farre gogotik egin zuten. ¿Eta nola etzuten egingo farre Bilinch-en itz, burruntzin baño zorrotzagoak aditzean? Berriro zirikatzen asteko gogo gabe geldituko zan noski Domingo Kanpaña, bere belarrietara itz oek irichi ziranean:

Mando baten gañian
 Domingo Kanpaña,
 Ez dijoa utsikan
 Mando orren gaña:
 Azpiyan dijoana,
 Mandoa da, baña
 Gañekoa, ere, bada
 Azpikon aña.

(1) Len esan degun bezela, ez dira guchi zaldi edo mandoan gañean euskeraz jarri diran neurtitzak, bañan ez dute zer ikusi Bilinch-ek ipiñi zituenakin. Onek etzuen bere gogoan, zaldi zuria baizik, Zaldi baten bitzita izkribatu zuenean. Maldaera an baño lenagokoak dira: Ikhazketako mandoa, Ishkerraren zamaria, Asto zahar bat, eta Behor bat erosi dut, adin onekua asten dana: arrazkerokoak: Erdaldun baten zaldiyari, neurtitz oek buruan dituen:

Zaldi ekuskarri bat
 Irunen saldu da....

eta beste oekin asten dana:

Markos Lasartekuak
 Saldu du zaldiya.

¡Mando baten gañean
Bestea, alajaña!

¡Ezin esan liteke obeto! Amarreko au, guk derizkiogunez, Bilinch-ek egin zituen gauza guztietan, utsaldirik guchiena duena, da. Ez dauka bear ez dan itzik, eta bakoitza dago bere tokian. Azkena ezin ta egokiagoa da, eta oraindik indar geyago ematen dio, len esaten dani.

V

Orra esan, gure iritzian, Bilinch-ek zer omen irabazi zituen. Ez degu esango bere neurtitzak utsaldi gabeak dirala. Ez degu jasoko lurrean izan diran neurtizlari aundienak jasotzen diran toki goitsuetara. Len aditzera eman degu zertan arkitzen degun goratu bear dala; zertan, gure ustean, beste neurtizlarien azpitik dagoen. Baña bere neurriyan, oroipen beti dirauena zor diogu, eta batez ere, zor dio Donostiak, gauza guziez gañetik, Donostia koa zalako, eta Donostia-ko kaletarren izaera nolakoa zan arakuzten digulako-Donostiarrak dira Bilinch-en autzik geyena dutenak neurtitzez mintzatzen asten diranean. Bada oyen artean bat, Victoriano Iraola, Bilinch-i asnasa artu diola dirudiena: aiañ egoki jarraitzen dio, irakasle bati bezela, eta aiañ Bilinch-en erara izkribatzen ditu molbaera bat baño geyago, eta batik bai; Aupoza senti det izendatzen dana. Ez bazan ere, Juramentu-baren egillea errien aurreretik dijoazen gizon aundienetakoa, ez degu artzaz aztu bear. Badira lurrean, ots aundirik atera ez badute ere, gogora ekarri bear ditugun gizonak; eta ez bakarrik gogora ekarri, baizaik gogoan eraman. Oek dira bizia alaitu digutenak, biotzari edertasun goitsuak erakutsiaz. Edertasunezko gauza bat, poz bat da beti ta betiko (1).

(1) A thing of beauty, is a joy for ever. JOHN KEATS. Eudymion.

Bilinch-ek utzi zituen, ere, itz neurrigabe edo larrietan egintako lan labur batzuek. Bere neurtitzen antzekoak dira. Maiteari dion maitasuna noranokoa dan esateko, itzik egokienak billatzen ditu. Lan oen artean bada bat erderatik itzulia. Ariosto-k izkribatu zuen Orlando furioso-tik biurtua da. Nere iritzian, Bilinch-ek etzuen aurrean egillearen lana, baizik gaztelaniaz,

len egintako itzuleraren bat. Euskeraz jarri zuen zatia, lenbiziko kantutik artua dago:

Tal si levó il Pagano a pié rimasso,
Angelica presente al duro caso,

esaten duten neurtitzetan asten da, eta lenbiziko kantua azkenarekin bukatu. Ariosto-k

Quel che segui tra questi due superbi
Vó cheper l'altro canto si riserbi

esaten duenenan Bilinch-ek ala dio: «Bañan urrengo kanturako gordetzen det naikidari arroante ayen arteratu zan gudaren kontaera

Lan oek guztiak, Manterola zanak argitaratu zituen, baña etzuen esan nondik artua zegoen azkeneko au. Orregatik uste izan degu emen esan bear genuela

¿Ezagutu ole zuen Bilinch-ek Galizian, bertako izkuntza samurrean izkribatzen zana? Gure iritzian, ez. Lamas Carvajal, Pondal, Curros Enríquez, Rosalia Castro eta beste gañerako Galiziako izkribalariak ipiñi dutenak, ez du Bilinch en neurtizik autzik. Au beti da da nekazaria neurtizik geyenetan azaltzen dana. Len aitatu ditugun biursari oyetako batek, Curros Enríquez-ek ipiñi zituen gaztelaniaz, Bilinch-en izena ta oroitza goratzen ziiuzten neurtiz batzuek; baña irakurtzea aski da, jakiteko ayek izkribatu zituena etzekiela Bilinch zeñ zan. Bere izena ezagutuko zuen, bere izaerarik, ez. Ala ez izatekotz ez liguke esango neurtizlari donostiarra Mendizorrotzko maldan zegoen chabola baten bizi zala.

«En la chocita blanca del monte inculto,
Donde á la patria rinde sagrado culto,
Del amor de sus hijos al dulce amparo,
Vive BILINCH el tierno poeta euskaro.

MANUEL CURROS ENRÍQUEZ.— La canción de Bilinch.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(Aurrendatuko da.)



INDALEZIO BIZKARRONDO

(BILINCH)



(BUKAERA)

Ara orain, gure iritzian, Bilinch-en moldaera guztietatik, utsaldirik guchiena dutenak. Farre-eragitekoetan:

DOMINGO KANPAÑA

Mando baten gañean
Domingo Kanpaña:
Ez dijoa utsikan
Mando orren gaña:
Azpiyan dijoana
Mandoa da, bala
Gañekoa ere bada
Azpikoa aula:
¡Mando baten gañean
Bestia alajaña!

Biotzeko maitetasuna azaltzen duten guztietan, utsaldirik guztiena arkitzen dioguna, da

BETI ZUTZAZ PENSATZEN

Dama gazte bat ezagutzen det
 Diruriyena izarra,
 Eguzkiyari kopetatikan
 Saltatutako chingarra;
 Biyotz nerian ala piztu du
 Amoriyozko su-garra,
 Nola mendiyen piztu dezaken
 Chimistak arbol igarra.

*
 * *

Beti goguan zauzkatan dama,
 Izarra dirurizuna,
 Eguzkiyaren biarrik gabe
 Argi egiten dezuna;
 Berdin-gabeko amoriyua
 Senti-arazten nazuna,
 Aditzera eziñ eman liteke
 Dizutan maitetasuna.

*
 * *

Nere begiyak beren aurrian
 Ikusten ez bazaituzte,
 Gizarasuak eta biyotza
 Egoten dira chit triste;
 Sinista zazu mundu guztian
 Ez dala iñor ni beste,
 Zu maitatzeko kapaz danikan
 Merezi dezun ainbeste.

*
 * *

Gau eder alai ayetako bat
 Gertatutzen dan orduban
 Izarrak diz-diz egiten dute
 Zeruko urdiñ purubao;
 Diferentzirik batere gabe
 Zuk nere pensamentuban
 Diz-diz alasen egiten dezu
 Nola izarrak Zeruban.

*
 * *

¡Ia gozua izango al-dan,
 Enamaturik dana,
 Ama on batek aur maitiari
 Ematen diyon lastana!
 Alare bada beste gauza bat
 Askoz gozua dana,
 Zureganako amoriyua
 Nere biyotzak daukana.

*
 * *

¡Nork irukiko zaitu nik beziñ
 Istimaziyo aundiyan,
 Animatikan maite bazaitut
 Erotutzeko zoriyan?
 Amoriyozko naitusunakiñ
 Gorderik erdi-erdiyan,
 Biyotz nerian ala zaukazkit
 Nola niniya begiyan.

*
 * *

Bost urte diran ez dakit baño
 Beñepeñ badirade lau,
 Faltatu gabe nere oroitzan
 Zaudela egun eta gau;
 Zu ichumenez maitatutzeko

**Zerubak siñalatu nau,
Alik lenena premiya zazu
Egiyazko naitasun au.**

**Eta begiak alaitzeko, eta gure aurrean dizdiz egiñaz azaltzen diran
moldaeretan, ederrena, guk derizkiogunez, da emen ipiñiko deguna.**

LORIAK

**Beti nik damari
¡Loriak ugari!
Batez ere zerbait
Maite naukenari.
Damak berriz neri
¡Gezurra diruri!
Osiñez pagatu
Lorezko zor ori**

* ***

**Oso nabo mendian
Jaungoiko ichubarren,
Ama Venus-en-gandik
Jayotakoaren;
Neroni ez naiz jabe
Nere biyotzaren,
Gaisua preso dakat
Amoriyuaren**

* ***

**Sartutzen dan bezela
Balkoi batetikan,
Eguzkiya gelara
Kristaletatikan,
Neri gisa berera
Beñ sartu zitzaitan
Dama bat biyotzera
Begiyyetatikan,**

*
* *

**Biyotz nerian preso
Gelditu zan bertan,
Geratzen dan bezela
Chingarra iyaskan:
Bizi naizen artian
Irukiko det au,
Eta jó zer gustora
Irukiko detan!**

*
* *

**Ditu ille urrezko
Albiñu luziak,
Alakorik apaintzen
Ez du orraziak:
Frankotan inbiriya
Eman dit aiziak
Aren trentza tartetik
Jostatzen pasiak.**

*
* *

**Ondo konparatzia
Da gauza eziña**

**Arren begiyetakoe
Urdintasun fiña:
Ez da urrutirare
Aitatzeko diña,
Itsasoko bagaren
Kolore urdiña.**

*
* *

**Ez da zer aitaturik
Zeru zabala-re,
Bolaraz urdiñ-urdiñ
Jarritzen dalare;
Aingeru neriaren
Begiyak alare,
Urdiñ purubagoko
Zerubak dirare.**

*
* *

**Izarrak dirurite,
Ain ditu argiyak,
Aingerubak Zerutik
Jachita jarriyak;
Gloriyan egintako
Ispillu garbiyak,
Jaungoikoa badala
Gogoragarriyak**

*
* *

**Cupido-k eritzen nau
Flechahkin berriro,
Neregana jiratzen
Dituben aldiro,**

Biyotzera sartzen zait
 Eztiro-estiro,
 Alakose gauza bat
 Goma guztiro.

*
 * *

Aren ezpañ gorriyak,
 Faman daude fintzat,
 Iñoiz pasatzen dira
 Lore polit bitzat;
 Zerbaitez aparterik
 Ikusi ta beintzat,
 Mundu guztiyak artzen
 Ditu krabeliñtzat

*
 * *

Farrik egiten badu
 Zerutar birjiñak,
 Erakusten dituben
 Ortza chiki fiñak,
 Churiz elurrarekin
 Dirate berdiñak,
 Perlak iruri dute.

*
 * *

Gozuaren birtutez
 Aren asnasiak,
 Lo-arazitzen ditu
 Nere oñaziak:
 Usai oberik ez du
 Banatzenaiziak,

**Loriak maitatubaz
Baratzan pasiak.**

*
* *

**Arpegiya polita,
Gorputza liraña,
Chikiz ez det esaten
Oñaren tamaña;
Ibiltzen airetsua,
Jantziya apaña,
Arren graziyak dira
Eziñ esan aña.**

